

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 10a

ATZERRIKO ONDASUNEI BURUZKO ZIRKULARRA

Atzerriko ondasun eta eskubideen titular den pertsona fisiko eta juridiko orok ondasun horiek aitortzeko obligazioa dauka. Obligazio hori dute, halaber, aitorten-urtearen uneren batean ondasun horien titular, ordezkari, baimendu edo onuradun izan direnek, haien gainean ahalen bat izan dutenek eta titular erreal izan direnek.

Informatze-obligazio bat da, eta oraindik onartu gabe dagoen eredu baten bidez egingo da. Eredu hori aitorten-urtearen hurrengo urteko urtarril eta martxo bitartean aurkeztu beharko da. 2014ko urtarril eta martxo bitartean aurkeztu beharko da lehenengo aldiz aipatutako aitortpena, eta 2013ko ekitaldiari dagokion informatze-aitortpena izango da.

Kontuan izan behar da hurrengo urteetan aitortpena egitea beharrezkoa izango dela baldin eta soilik baldintza hau gertatzen bada: aitortu beharreko elementu-bloke bakoitzeko baterako saldoa 20.000 euro handitu bada aurreko urtean aitortutako saldoekin.

Zehatz esatera, ondasun hauek aitortu beharko dira:

- Atzerrian dauden kontuak, banku- edo kreditu-trafikoan jarduten duten erakundeetan irekiak. Titular, onuradun edo baimendu izanez gero, edo haien gainean ahalen bat edukiz gero
- Zure titulartasuneko izanik atzerrian kokatutako higiezinak eta haien gaineko eskubideak.
- Zure titulartasunekoak izanik atzerrian dauden higigarriak eta haien gaineko eskubideak.
- Zure titulartasunekoak izanik atzerriko herrialderen batean matrikulatutako edo hango erregistroetan jasotako higigarriak eta haien gaineko eskubideak.

Dena den, kontuan izan behar da aitortpena aurkezteko salbuespena ezartzen dela ondasun-eta eskubide-kategoria guztien batura 50.000 €-tik beherakoa denean.

Aitortpena ez aurkezteak dakartzan ondorioei dagokienez, justifikatu gabeko ondare-irabazi gisa hartuko da eta preskribatu gabeko zerga-aldietan antzinako enaren oinarri likidagarri orokorrean sartuko da, zigor hau ezartzeaz gain: delako zerga-oinarrian sartuta suertatzen den kuota osoaren %150eko isuna.

Bestalde, zigorra ezarriko da, baita ere, aitortu beharreko guztiak aurkezten ez badira; diruzko isuna izango du horrek, finkoa, 5.000 eurokoa aitortu gabeko datu edo datu-multzo bakoitzagatik, 10.000 €-ko gutxieneko zenbatekoarekin.

Azkenik, aitortpena epez kanpo aurkezten bada Zerga Administrazioak aurrez errekerimendurik egin gabe, isuna 100 €-koa izango da datu edo datu-multzo bakoitzeko, 1.500 €-ko gutxieneko zenbatekoarekin. Eta modu berean zigortuko da aitortpena bide elektronikoa, informatikoa eta telematikoa kanpo aurkeztuz gero.